

BALOREZKO PROPOSAMENA

Makina hauek Hondarribiko zenbait leku desberdinetan kokatuko ditugu eta adin guztietako pertsonentzako zuzenduta.

Hondarribian, zenbait gabezi identifikatu ditugu; herrian daude hiru farmaziek ez dute 24 orduko zerbitzurik eskaintzen eta horregatik, bertan dauden hotel, kanping eta polikiroldegietan makina hauek jartzea oso positibo dela iruditzen zaigu bertan dagoen jende mugimendua dela eta.

Honi aurre egiteko, ondorengo zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa sortzea erabaki dugu:

- Farmaziako ordutegitik kanpo produktua erosi nahi dituenarentzako.
- Herri bertako farmazietan ilarak ekidin nahi dituenarentzako.
- Herritik urrun dauden kanping, hotel eta polikiroldegi eskaerak asetzeko.
- Edozein unetan zerbait behar denean, soinean ez duzulako, makina hori hortxe izatea.

Guk eskaintzen dugun zerbitzu berdineko enpresarik ez dago herrian eta inguruan, horregatik positibotzat ikusten dugu Hondarribian eta bertako hainbat leku estrategikoetan astea, pixkanaka leku gehiagotara zuzenduz.

Gure enpresaren ezaugarri aipagarrienak hauek izango lirateke:

- Gure lehiakideengatik bereizten gaituena, gure zerbitzua pertsonalizatua izango da.
- Prezioa guztientzako eskuragarri egongo da.
- Gure makinak, IRAOLA MARTINEZ MAITE FARMAZIA (Itsasargi kalea 14), KANPING JAIZKIBEL ETA KANPING FARO DE HIGUER-EN ETA HONDARTZA KIROLDEGIAN egongo dira kokatuta.



- Gure makinaren diseinua, sinplea eta erabilera errazekoa da.
- Berritasunak, produktu desberdinen monodosi eta dosi txikietan salmentan datza, ez da betikoa izango, adibidez; kondoien, lubrikanteen e.a. salmenta gutxiagotuko da eta garrantzia emango zaio beste zenbait produktuei, adibidez: begiak garbitzeko kolirioak, tiritak, golpeentzako pomadak....
- Makina automatiko hauek erabiltzeko errazak izan behar dute, kontutan izanda mota desberdinetako bezeroak izango ditugula. Honen erabilera, txanpon edo diru-papera makina barruan sartuaz botoi bati sakatu nahi duzun produktuaren zenbakia ipiniz. Beste berrikuntza nagusienetarikoa bat txartelarekin ordaindu daitekeela da. Produktua makinaren bekaldera erortzen denean, dirua justu ez badu ipini bezeroak, itzuli egingo zaio sobratutako dirua.

- Edozein arazoren aurrean, makinak beste botoi bat izango du 24 orduko sistema batekin, bertan arazoari konponbide bat emanaz.

Enpresaren logotipoa berriz guk geuk diseinatu dugu, osasun arloan oinarrিতා baitago. Gure enpresaren seriotasuna eta konpromisoa erakutsiz, proiektuaren diseinua bizia eta sinplea egin dugu.

Gure proiektuak hasiera batean ez digu onura handirik

emango baina gure asmoa pixkanaka hobetzen joatea izango da. Hasieran, proba moduan produktu batzuekin hasi gara eta ondoren, salmenta arrakastatsuenak dituzten produktuen arabera, horiek izango dira gehiago bultzako ditugunak.

Bestalde, Hondarribian hasi dugu gure proiektua, baina gerora beste herrietara zabaltzeko asmoa dugu.

Printzipioz, gure proiektua bideragarria dela uste arren, ez dugu inbertsio handirik egin behar, arrisku minimoa hartuko dugularik. Hasiera guztiak gogorak direnez, makinak alokatu egingo ditugu, garraiorako kotxea gurea izango da eta almazena ere. Gainera, gure negozio txiki honi ezker ez gara biziko, hau ez da gure bizimoduaren iturri izango. Beraz, extra moduan izango ditugu lortzen ditugun etekinak.

SoloStocks

